



Brian Currin

Hegoafrikako, Ipar Irlandako eta Euskal Herriko bake prozesuetan ikasitakoak

H I T Z A L D I A

IRITZIAK

• Paul Rios

• Imanol Murua Uria

Bake prozesu formalaren aldarrikapena

Ondorengo orrietan irakurgai den konferentzia Brian Currinek Europar Batasunean emana da, Bruselan, 2008an. Irakurlearentzat interesgarria dela iritzita berreskuratu eta itzuli dugu, garai berriak ate-joka, Hegoafrikan eta Ipar Irlandan hemen zail diruditen zenbait gai nola konpondu zituzten oso argi azaltzen baitu abokatu hegoafrikarrak bertan.

Bake prozesuak arrakasta izateko, guztiz beharrezkoa ez bada ere, azpimarratzen du oso positiboa dela izaera formala edukitzea, baita konpondu beharrezkoa konpontzeko, bi aldeetan benetako gogoia eta nahia izatea ere. Ezker abertzalearen legalizazioaz gain, bake prozesu formal baten aldarrikapena egiten du bertan.

Brian Currinek 20 urte baino gehiago daramatza bateko eta besteko gatazketan esku hartzen. Bere herrialdean lehenbizi, apartheidaren aurkako posizio argia hartu zuten zuri bakanetakoa izaki, bertako bake prozesuan jarrera aktiboa izan zuen, erregimenaren aurka ari ziren ekintzaile ugari legalki defendatuz, eta gero, Egiaren eta Berradiskidetzearen Komision goi mailako ardurak bere gain hartuz. Behin Hegoafrikan egitekoak amaituta, Sri Lankan, Rwandan, Ekialde Hurbilean eta Ipar Irlandan ibili da alde ezberdinak elkarrengana hurbildu nahian, eta askotan, Irlandan adibidez, emaitza arrakastatsuak lortuz. Orain, urteetan bildutako esperientzia Euskal Herriko gatazka bideratzeko aplikatzen ari da.

Hitzaldiaz gain, bi iritzi artikulutan, klabe garbi batzuk ematen dituzte Paul Rios eta Imanol Murua Uriak. Lehenak balizko bake prozesuak nolako egitura izan behar duen aztertzen du, eta bigarrenak berriz, analisi zabalagoa egiten du. Muruaren ustez, aurreko prozesua eta hurrena, oso ezberdinak izango da, eta ETAk bake prozesua baino lehen armak utzi izanak eskema guztiak aldatzen ditu.

Hegoafrikako, Ipar Irlandako eta Euskal Herriko bake prozesuetan ikasitakoak

Itzulpena: Nagore Irazustabarrena

MAILA POLITIKOAN, PROTAGONISTEK KONPONBIDE BAKETSUA ETA NEGOZIATUA AURKITZEKO BEHARREZKOA DA LEHENTASUNEZKO BEHAR PARTEKATUA IZATEA

Lehentasunezko beharrak esan nahi du bi aldeek irtenbide negoziatua baino aukera hoberik ez dutela pentsatzea. Izan ere, aldeetako batek beste aukera bat hobea dela uste badu, bake prozesua abiatzeko oso aukera gutxi daude. Bereziki, estatuak ordezkatzeko duen aldeak konponbidea lortzeko segurtasunaren aukera negoziazioarena baino hobea dela sinesten badu. Segurtasun lege bereziak zorrotz ezartzeak eta betearazteak egoera okertu du eta oposizio indar militanteak erreklutatzeko elikatzen du.

Nire esperientziaren arabera, estatua konturatzeko denean segurtasun aukerak ez duela konponbidea ekarriko eta konponbide negoziatua aukeratzen duenean, estatuaren aurkako oposizioak, beti ez bada ere, gehienetan, aukera horrekin bat egiten du. Bat egite hori beste aldagai batzuek ere eragiten dute, aurrerago aipatuko ditudanak.

1980ko hamarkadaren amaieran, apartheidaren gobernuak nazioarteko presio izugarria zuen eta barruan herritarren mugimenduei aurre egin behar zien. Afrikanerren (oro har, zurien) biziraupena bera mehatxupean zegoen. Halaber, aintzat hartu behar da nazioarteko giroa asko aldatu zela (Sobietar Batasuna desagin eta Gerra Hotza amaitu zen) eta, ondorioz, apartheidaren gobernuarentzat “oldar komunistaren” arriskua lausotu zela. Hegoafrikar zuri gehienentzat African National Congress

(ANC) alderdiak oinarri komunistak zituen eta komunistek sustatzen zuten.

Beste aldean, ANCK eta beste askapen indar batzuek ez zuten herrialdea suntsituta berreskuratu nahi. Gainera, borroka armatuak bere bidea egina zuen. Militanteek garaipen militarra sekula ez zutela lortuko eta beste estrategia bat abiatzeko garaia zela onartu zuten. Ezustean, beraz, bi aldeak aldi berean iritsi ziren konponbide negoziatuaren beharra lehenestera.

Britainia Handian eta Ipar Irlandan, 1980ko hamarkadaren hasieratik aurrera, Westminsterren eta irlandar errepublikarren arteko elkarriketa behin eta berriro eten eta berrabiatu zen. Ipar Irlandako gatazka oso garestia izaten ari zen Britainia Handiarentzat, bai diru aldetik, bai giza baliabideei zegokionez baita ospari zegokionez ere. Britainia Handiak konponbidea behar eta nahi zuen. Urte batzuk lehenago ANCK bezalaxe, irlandar errepublikarrek ere borroka armatuaren bidea agortua zela eta konpromiso nahiz negoziazio estrategien bidez gehiago lor zitekeela uste zuten.

Espanian, ez dirudi Madrilek euskal nazionalistekin dagoen gatazka negoziazioen bidez konpontzeko arrazoi konbentzigarriak duenik. Segurtasun estrategia ezartzeari lehentasuna ematen diote eta, dirudienek, munduak (nagusiki, Europak) ez du uste euskal kausak hori merezi ez duenik. Itxuraz, nazioarteko ikuspegiaren arabera, euskal herritar gehienak gustura daude egungo egoera konstituzionalarekin, gatazkek Euskadi Ta Askatasunako (ETA) muturreko militante terroristek eragiten dituzte eta ETAREN eskakizunak zentzugabeak eta

“Ipar Irlandan, 1998ko apirilean, alderdi nagusi guztiek sinatu zuten Ostiral Santuko Akordioa. Itunaren xedea akordio iraunkorra lortzeko oinarriak ezartzea zen”

konstituzioaren aurkakoak dira. Ikuspegi horri esker, Espainiak nazioarteko laguntzaz izuaren aurkako bere gerrarekin jarrai dezake.

BURUZAGITZA POLITIKOAK INDAR ARMATUEN BABESA BEHAR DU: ARMA-DA ETA POLIZIA ESTATUAREN ALDEAN; MILITANTEAK ZAPALDUEN ALDEAN

Ziurrenik faktore hau oso agerikoa da. Hala ere, bake prozesuak burutzeko saiakera askok huts egin izan dute alde bateko nahiz bi aldeetako negoziatzaileek indar armatuen babesik izan ez dutelako. Orain gutxi gertatutako adibidea datorkit gogora: Zimbabwekoa. 2007ko hauteskundeetan MDC alderdiak parlamentuko eserleku gehienak eskuratu zituen eta Morgan Tsvangirai Robert Mugabe garaitu zuen presidente izateko lehian. Iturri fidagarrien arabera, Mugabe botereari uko egiteko prest zegoen. Baina bere armadako jeneralak beldur ziren urte askotan egindako basakeriengatik zigortuko ote zituzten. Botereari eusteko presioa egin zioten hauek Mugaberi.

Egoera honetan, batasun nazionalaren gobernua osatu eta oposizioko buruzagi Tsvangirai lehen ministro izendatu ondoren ere, segurtasun indarrek lehengo biderei eusten diote. MDCko ministro hautetsi bat atxilotu eta espetxeratu dute. Horrelako ekintzek protagonisten arteko konfiantza deusezten dute eta, beraz, bake prozesua bera oztopatu.

Espainian ere antzera gertatu zen; Madril erbesteratutako independentziaren aldeko

ezkertiarrekin (ETArekin) negoziatzen ari zen bitartean, segurtasun indarrek, epaile kontserbadoreen laguntzaz, segurtasun neurri zorrotzak ezartzen jarraitu zuten eta, bake prozesua bertan behera geratu zenerako, ezker abertzaleko barne buruzagi guztiak espetxean zeuden. 2007. urtearen erdialdetik 2009ko hasierara bitartean izandako 300 espetxeratzeetatik, ia gehienak indarkeriarekin zerikusirik ez duten delituak leporatuta izan ziren.

Hegoafrikako bake prozesuan, poliziako nahiz armadako zenbait kide –gutxiengoa izan arren– gehiengo beltza izango lukeen gobernua ezartzeko akordio politikoen aurka zeuden. Ezkutuko ekintzak burutzen hasi ziren, indarkeria, kaosa eta anarkia eragin asmoz. Herritar zuriak “etsaiekin” akordioa negoziatzearen aldeko jarrera bazter zezaten eta segurtasun aukeraren alde egin zezaten nahi zuten, horrek militarren estatu kolpea esan nahi bazuen ere. Hasiara batean inork ez zekien norik eragin zituen ANCKo buruzagien hilketak, ez ANCKo jarraitzaileen aurkako sarraskiak, baina ANCK susmatzen zuen segurtasun indarretatik zetozela. Horrek asko tenkatu zuen negoziaketa eta Nelson Mandelak une batean ANC zortzi hilabetez bake prozesutik baztertea erabaki zuen. Oposizioko indarren eta herritarren presiopean, De Klerk presidente zuriak epaile bat buru zuen batzordea izendatu zuen indarkeria ekintza horiek ikertzeko. Batzordeak indarkeria polizia erakundeetako kideek eragin zutela ondorioztatu zuen, hau da, “hirugarren indar” bezala ezagutzen zirenek. Hori onartuta, arazoari heldu zioten: errudunak jazarri eta atxilotu zituzten.

Ipar Irlandan, 1998ko apirilean, alderdi nagusi guztiek sinatu zuten Ostiral Santuko Akordioa. Itunaren xedea akordio iraunkorra lortzeko oinarriak ezartzea zen. Gogoan izan behar da Ostiral Santuko Akordioak arma paramilitarrak konfiskatzeko eta Ipar Irlandan etorkizuneko polizia antolatzeko proposamenak egin zituela. Katoliko errepublikarrentzat Royal Ulster Constabulary (RUC) polizia Ipar Irlanda

herritar protestanteentzako lurralde protestantea izaten jarraitzeko trebatutako segurtasun indarra zen. RUCeko kideen %95 protestanteak ziren eta ukazina zen erakundea oso politizatu zegoela. Kide askoren ustez, katoliko errepublikarrak, IRAren aldeko jarraitzaile aktiboak ez zirenak ere, Ipar Irlandaren etsaiak ziren, ez ziren besteak bezalako herritarrak. RUCeko zenbait kide estatuaren aldeko indar paramilitar loialistekin harremanetan zeuden eta, beraz, bake prozesuaren aurkako indar armatua antolatzeko benetako arriskua zegoen.

Ostiral Santuko Akordioan oinarrituta, poliziari buruzko batzorde berezi bat eratu zen, Ipar Irlandan poliziaren aldaketari buruz ikertzeko eta gomendioak egiteko. Horrela, estatuak publikoki onartu zuen poliziarena konpondu beharreko arazoa zela. Batzordeak poliziaren afera agertoki nagusian ipini zuen, publikoaren etengabeko azterketaren begiradapean eta eragile politiko guztien akordioak baldintzatuta. Ondorioz, Ipar Irlandan poliziaren gaia mantso baina etengabe aldatu zen, bake prozesuaren beste elementu batzuen erritmo berean. Ostiral Santuko Akordioa sinatu eta bederatzi urtera, errepublikarrek ofizialki egin zuten bat poliziaren aferarekin eta ordurako RUC erakunde gisa desagertua zela, jarraitzaileak Ipar Irlandako Polizia Zerbitzuan sar zitezten animatu zituzten. Poliziaren bilakaera aldaketa politikoarekin batera egin izanak, goi mailan, barruti mailan nahiz komisaria mailan, buruzagitza politikoaren eta poliziaren arteko balizko desadostasun ideologikoak egoteko arriskua neutralizatu zuen.

Garrantzi handia du askapen mugimenduetan / erakunde terroristetan, buruzagitza politikoaren eta militarren arteko botere harremanak. Negoziazio aurreko fasean, militanteen parte-hartzea funtsezkoa da, su-etenak, kalteordainak, erbesteratuen itzulera, jazarpenen amaiera, presoan askatasuna, desarmea eta halako gaiak eztabaidatzeko. Negoziazio prozesuan konpondu behar diren funtsezko aferak, ezinbestean, afera politikoak / konstituzio-

“Ostiral Santuko Akordioan oinarrituta, poliziari buruzko batzorde berezi bat eratu zen, Ipar Irlandan poliziaren aldaketari buruz ikertzeko eta gomendioak egiteko. Horrela, estatuak publikoki onartu zuen poliziarena konpondu beharreko arazoa zela”



WIKIPEDIA

IRAko militanteei 1978an egindako argazkia.

nalak dira. Negoziazio horiek buruzagitza politikoak zuzentzen ditu. Buruzagitza politikoaren eta militanteen artean etenik gabeko komunikazio bideek irekita egon behar dute eta behin

“Fede onez negoziatzea, biak asebeteko dituen emaitzak lortu asmoz, beharrak eta nahiak aztertzea da, eta ez, parekoaren ahuleziak baliatuz, eskakizun bat onar dezan behartzeko boterea erabiltzea”

joera politikoak negoziatzeko eseri direnean, militanteek beren jarduna negoziazio politiko prozesuaren mendean jarri behar dute. Alde bakarretik su-etenak haustea guztiz kaltegarriak diren ondorioak dakartza. Maila politikoan horrenbesteko ahaleginez eraikitako konfiantza suntsitu egiten da.

Hegoafrikan eta Ipar Irlandan, buruzagitza politikoaren eta buruzagitza militarren arteko batasuna argia zen. ANCKo goi buruzagitza eta adar armatua, Mkonto we Sizwe (MK), gauza askotan batuta zeuden. Zorionez, bien arteko harremana aspalditik zetorren eta, ondorioz, ANCK erabaki politikoak hartzen zituenean, MKrekin kontsultatuta egiten zuen. Ondoren, erabakiok negoziazioetan eztabaidatzen zirenean, MKren barruan diziplinari eutsi zitzaion eta MKk erabakiok errespetatu zituen. Sinn Feinen eta Irish Republican Armyren (IRA) arteko harremana ere antzekoa izan zen.

Ez da halakorik gertatu Euskal Herrian. Presoen askatasuna, erbesteratuen itzulera eta halako gaiak jorrazteko aurre-negoiaziorik egin ez zenez, ETAko buruzagitza erbestera-tuaren, espetxeratuen eta barne buruzagitza politikoaren arteko komunikazioa oso zaila zen. Ondorioz, zenbaitetan, bien asmo eta estrategiak ez zetozen bat. Negoziatio politikoak ez atzera ez aurrera blokeatu zirenean negoziatzaileen arteko desadostasunak leuntzen saiatu beharrean, ETAk lehergailuei eta hilketei heldu zien berriro. Horrek zorigaitzoko ondorioak izan zituen bake prozesuan: Espainiako Gobernuak salduta eta lotsatuta sentitu

zen. Zapatero presidenteak negoziatioak bide onean zeudela esan zien Espainiako herritarrei, Madrilgo aireportuan 500 kiloko lehergailuak eztanda egin baino egun gutxi batzuk lehenago. Madrilgo Gobernuaren iritziz, adar militarreko kide gogorren mendean zegoen adar politikoarekin negoziatzen ari ziren eta horrek ezinezko egiten zuen negoziatioei eustea, beti ere hauen arabera; beren buruetan pistolak jarrita negoziatzea bezala zen.

PROTAGONISTEK KONPONBIDE BAKETSUA ETA NEGOZIATUA LORTZEKO ETENGABEKO KONPROMISOA PARTEKATU BEHAR DUTE

Hau ezberdina da konponbide negoziatua lortzeko lehentasunezko beharra izatearekin. Beharra izatea gauza bat da, konpromisoa izatearekin zerikusirik ez duena.

Etengabeko konpromiso partekatua eskatzen du bi aldeek elkarrenganako konfiantza maila jakin bat izatea eta biek onartuko duten konponbidea lor daitekeela sinestea. Etorkizunaren ikusmolde bera izan behar dute; ez xehetasun guztietan, baina bai gutxienez puntu nagusietan. Horrek esan nahi du fede onez negoziatzeko eta zenbait puntutan amore emateko prest egon behar dutela.

Fede onez negoziatzea, biak asebeteko dituen emaitzak lortu asmoz, beharrak eta nahiak aztertzea da, eta ez, parekoaren ahuleziak baliatuz, eskakizun bat onar dezan behartzeko boterea erabiltzea.

Hegoafrikan negoziatio politikoan abiatu zirenean, adostasun zabala zegoen konponbideak zer ekarriko zuen: Apartheidaren amaiera; arraza bazterkeria legezatuaren amaiera; kudeaketa demokratiko berria, hiritar guztiek, arraza kontuan izan gabe, bozka eskubide bera izan zezaten eta guztien eskubide zibil nahiz politikoak babesteko mekanismoak ezartzea. Oro har, etorkizuneko Hegoafrikari buruzko ikusmoldea bi aldeek partekatzen zuten, bana-

koen nahiz talde anitzen eskubideak, beharrak, itxaropenak, aukerak eta beldurrak jorratuko ziren herrialdea nahi zuten. Hori egiteko moduak, xehetasunak, negoziatu behar ziren: Estatuaren izaera, batasun estatua ala federazioa? Herritarren funtsezko giza eskubideak nola babestuko ziren, gutxiengo taldeen eskubideen bidez ala banakoen giza eskubideen bidez? Konstituzioa zer printzipiotan oinarrituko zen? Zer prozesu baliatuko zen Konstituzioa osatzeko eta nor hartuko zuen parte prozesu horretan? Trantsizio garaiko justizia mekanismoak zer izaera eta forma izango zuen?

Ipar Irlandan ere ikuspegi partekatu berria dago. Bake prozesuaren emaitza positiboa lau printzipio nagusitan oinarrituta dago eta gatazkaren alde nagusiek puntu horietan amore eman behar izan zuten. Hauek dira lau printzipioak:

- Unionista protestanteek Ipar Irlanda ez dela protestanteentzako estatu protestantea onartu behar izan zuten, tradizio katoliko nazionalista / errepublikarrak beren tradizioaren balio bera duela eta herritar guztiek eskubide eta aukera berdinak izan behar dituztela, tradizioa eta erlijioa kontuan izan gabe.
- Nazionalista / errepublikar katolikoek Ipar Irlanda legalki eta konstituzionalki Erresuma Batuaren parte dela onartu behar izan zuten, testuinguru horretan jokatzeko prest daudela eta aldaketa politikoa soilik bitarteko baketsu demokratikoen bidez gauza daitekeela onetsi.
- Irlandar Errepublikako gobernuak Konstituzioa aldatu behar izan zuen, Ipar Irlanda Irlanda batuaren parte zela aldarrikatzen zuten klausulak ezabatuz.
- Gobernu britainiarrak Ipar Irlandaren subiranotasunari uko egiteko akordioa onartu behar izan zuen, baldin eta erreferendum nazional batean gehiengoak Irlanda batuaren alde bozkatzeko balu.

Kontzesio konstituzional hauek israeldarren eta palestinarren arteko gatazkara eramaten

baditugu, erraza da ulertzea zergatik ez dagoen han aurrerapenik. Oinarrizko printzipioetan partekatutako ikusmoldearen edo elkar onartzearen arrastorik ez dago, esaterako, israeldarrek legez kanpo okupatutako lurraldeak uztea, alde batetik, eta israeldarren naziotasun eskubidea, bestetik.

Madriren eta euskal nazionalisten artean ere ez dut ikusmolde partekatuaren zantzurik ikusten. Espainiako Gobernuak ez dago prest euskal herritarrek etorkizunari buruz duten ikuskera publikoki adieraz dezaten uzteko ere. Lehendakariak bere herritarrak kontsultatu nahi izan zituen loteslea ez zen erreferendum bidez, autodeterminazio eskubideari buruz galdetzeko, baina Espainiako Gobernuak auzitegiak erabili zituen ahalegina debekatzeko.

KONPONBIDE NEGOZIATUA LORTZEKO INGURU EGOKIA BEHAR DA ETA BEREZIKI JOKO EREMUAK MAILA BEREAN JARRI BEHAR DIRA

Indarkeriazko gatazka politikoen kasuetan desorekatua izan ohi da Estatuaren eta oposizio militantearen arteko botere balantza. Konponbide negoziatuaren beharra lehenetsiz ordurarteko ikuspuntua aldatu aurretik, aurreko pausoa, segurtasun zapaltzailearen legislazioa gogortu ohi da, boterearen eta indarraren bidez konponbidea lortzeko azken ahaleginean. Negoziazioek arrakasta izan dezaten aldean arteko botere erlazio horretan oreka behar da.

Joko eremua parekatzeak esan nahi du Estatuak segurtasun konponbidea bultzatu zuenean egindako ia guztia desegitea. Horrek hau guztia eskatu ohi du:

- Legez kanpokotzat edo terroristatzat jotzen ziren erakundeen gaineko debekua kentzea.
- Preso politikoak, bereziki buruzagitzan daudenak eta negoziazioetan funtsezko parte hartzea izan dezaketanak, espetxetik askatzea edo haien gaineko debekuak kentzea.
- Erbesteratutako buruzagiak ez jazartzea ahal-



ARGAZKI PRESS / JON URBE

PSE-EEko eta Batasunako ordezkarien arteko bilera publikoa, azken hauek legez kanpoko zirela. Behin bake prozesua hautsita, bai Ibarretxek eta baita Rodolfo Ares eta Patxi Lopezek ere epaitegietara joan behar izan zuten alderdi ilegalekin bilerak egiteagatik.

bidetuko duten legeak onartzea, etxera itzul daitezten eta bake prozesuan parte har dezaten.

- Segurtasun lege zorrotzenak indargabetzea.
- Aldaketaren aurka dauden segurtasun indarretako kideek ziurtatzea ez dutela egingo oposizio indarren aurka.
- Epaitzeke dauden auzi politikoak atzeratzea.
- Oposizio indarren esku oinarritzko bitartekoak jartzea, negoziazioei beharrezko sustapen egiturekin ekiteko –bulegoak, administrazioaren laguntza, ikerketarako baliabideak eta abar–.
- Apartheidaren Gobernuak ia elementu horiek guztiak jarri zituen aktiboki indarrean. Erronka nagusia segurtasun indarretako hirugarren indarrek kideak kontrolatzea izan zuen. Arazo horrek, aipatu bezala, ANCK negoziazioak uztea eragin zuen zenbait hilabetez.

Ipar Irlandan gai horiek Ostiral Santuko Akordioan landu ziren. Akordioak arma paramilitarrak konfiskatzea, Ipar Irlandako polizia-aren etorkizuna, erakunde paramilitarren (terroristen) debekua kentzea eta preso paramilitarrak epe laburrean askatzea jaso zuen.

Ostiral Santuko Akordioa hitz hauekin hasi zen: “Negoziatu dugun akordioak berriro hasiteko benetako aukera historikoa eskaintzen duela uste dugu, negoziazio multilateraleko parte-hartzaileok”. “Sufrimenduzko oinordetza sakon eta deitoragarria” utzi duten “iraganeko tragediak” aipatzen zituen.

Ondoren, hasierako adierazpen horrek parte-hartzaileek auzi politikoetan desadostasunak konpontzeko soilik bitarteko demokrati-

ko eta baketsuak erabiltzeko erabateko konpromisoa zutela zioen, baita mehatxua nahiz indarkeria erabiltzearen aurka zeudela ere.

Aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) Espainiako Gobernuak ez zuen joko eremuak maila berean jartzeko inolako ahaleginik egin. Horren orde, ahal zuten guztia egin zuten ezker abertzalea ahultzeko. Batasuna legez kanpo dago oraindik eta independentziaren aldeko buruzagiek alderdi berriak sortzeko egin dituzten saiakera guztiak geldiarazi dituzte. Ezker abertzaleko ordezkariekin biltzea legez kanpoko da eta, ondorioz, ezker abertzalearekin harremana zuten gainerako euskal alderdietako buruzagiak, demokratikoki hautatutako lehendakaria barne, auzipetu egin zituzten.

Azken urteetan independentziaren aldekoa buruzagi guztiak espetxeratu egin dituzte.

BAKE PROZESU EGITURATU ETA GARDENA BEHAR DA

Bake prozesuak egituratuta, planifikatuta, ondo antolatuta, profesionalki erraztuta beharko lukete eta oinarrizko arauak adostu beharko liriateke.

Bilera aretoak ondo hornitua eta erosoak izan behar du. Horrek esan nahi du atsedenerako gelak, hitzaldietarako baliabide egokiak eta alde guztiekin berdin lan egingo duen idazkaritza zerbitzua behar direla. Negoziazioak zailak, nekagarriak eta aspergarriak izan daitetzeke. Ahal den guztia egin behar litzateke negoziazioak hautsiko ez direla ziurtatzeko, funtsezko auzi batengatik ez bada.

Gardentasuna garrantzitsua da, baina kontu handiz kudeatu behar da. Gardentasunak ez du esan nahi hitz guztiak, eztabaida guztiak, iritzi desberdin guztiak, proposamen guztiak eta kontraproposamen guztiak publikoari jakinarazi behar zaizkionik. Oinarrizko arauak zer, noiz eta nork argitaratu behar dituen jaso

“**B**ake prozesuak egituratuta, planifikatuta, ondo antolatuta, profesionalki erraztuta beharko lukete eta oinarrizko arauak adostu beharko liriateke”

beharko lukete. Negoziazioak soilik negoziazio foroan egin behar liriateke eta ez aldi berean komunikabideetan.

Bitartekariak profesionalki izan behar dute, erabat inpartzialak izan behar dute, eta alderdi guztiek horiekiko konfiantza izan behar dute. Bitartekariak prozesua zehazteko eta kudeatzeko eskubidea eman behar zaie, beti ere alde guztien oniritziz.

Hegoafrikakoa nahiz Ipar Irlandakoa bake prozesu egituratuaren adibide garbiak dira.

Hegoafrikako bake prozesua bi alde nagusien arteko bilera sortarekin abiatu zen, 1990eko maiatzean, Apartheidaren Gobernuaren eta ANC alderdiaren artean. Hasierako bilera horien asmoa negoziazio prozesua itxuratzeke eta konfiantza eraikitzeke oinarrizko printzipioak aztertzea zen. Oinarri horiekin, Groote Schuur Agiria izeneko adierazpen bateratua egin zuten: “Gobernuak eta ANCK bat egin dute egungo indarkeria eta larderia giroa konpontzeko konpromisoan eta egonkortasuna lortzeko nahiz negoziazio prozesu baketsua abiatzeko konpromisoan”.

Adierazpenak ondoren, delitu politikoak, preso politikoak askatzea, inmunitatearen bermea eta erbesteratuak itzultzeari buruzko gomendioak egiteko lantaldea osatzea aipatzen zuen. Gobernuak eta ANCK indarkeria eta larderia gainditzeko komunikazio bideak ezartzea adostu zuten.

Hurrengo bilera garrantzitsua Pretorian egin zuten, 1990eko abuztuan. Pretoriako Agiria

“**P**retoriako Agiria delakoak jasotakoaren arabera, 1990eko abuztuan, ANCK borroka armatua bertan behera utzi zuen eta Hegoafrikako Gobernuak larrialdi egoera ahal bezain laster eteteko konpromisoa hartu zuen.

delakoak jasotakoaren arabera, ANCK borroka armatua bertan behera utzi zuen eta Hegoafrikako Gobernuak larrialdi egoera ahal bezain laster eteteko konpromisoa hartu zuen.

ANCren eta gobernuaren arteko hirugarren bilera formala Cape Townen egin zen, 1991ko otsailean, eta De Klerkek eta Mandelak sinatutako DF Malan Akordioa lortu zen. Pretoriako bileran aipatutako gaiak lantzeko, arazo eremuak identifikatzeko eta, oro har, negoziazio prozesua aurrera eramaten laguntzeko eratu zen lantaldearen txostena jaso zuten bileran.

Ipar Irlandan ere, funtsezko negoziazioak abiatu baino lehen konfiantza eraikitzen lagundu zuten akordioak adostu ziren. Baina Hegoafrikan ez bezala, Ipar Irlandan akordioak lortu ahal izateko bidaia diplomatikoak baliatu behar izan zituzten. Zenbait alderdi unionistek uko egin zioten zuzenean Sinn Feineko errepublikarrekin biltzeari eta jarrera horri eutsi zioten ia negoziazio prozesu guztian. Azkenean, gela berean biltzeko prest egon ziren, baina soilik bitartekari bat tartean egonda.

Ipar Irlandako negoziazioak hasi baino lehen, bitartekarien buru George Mitchell senatariak *Mitchell Principles of Democracy and Non Violence* (Mitchellen Printzipioak Demokraziaren Aldeko eta Indarkeriaren Aurka) delakoa onartzeko eskatu zien alde guztiei:

- Auzi politikoak ebazteko soilik bitarteko demokratikoak eta baketsuak erabiltzea.

- Erakunde paramilitarrak erabat armagabetzea.
- Armagabetzea batzorde independente batek egiaztatzea.
- Norberak indarkeria erabiltzeari edo indarkeria erabiltzeko mehatxuari uko egitea, eta besteek indarkeria erabiltzearen aurka egitea, negoziazio multilateralen bidean edo emaitzan eragin nahian.
- Negoziazio multilateralean lortutako akordioak betetzeko eta soilik metodo demokratiko eta baketsuak erabiltzeko adostasuna lortzea, desadostasunak dauden emaitzak aldatzeko ahaleginak egiterakoan.
- “Zigor” hilketak eta erasoak lehenbailehen amaitzea eta halako ekintzak saihesteko neurri eraginkorrak hartzea.

Itzul gaitzen Hegoafrikara: Negoziazio prozesu konstituzionalaren lehen bilera formala World Trade Centre eraikinean egin zen, Johannesburgetik gertu, 1991ko azaroan. Bileraren helburu nagusia negoziazio egituraren lehen osoko bilkura prestatzea izan zen. Lehen osoko bilkura horri Codesa esaten zaio (*Convention for a Democratic South Africa* edo Hegoafrika Demokratikorako Biltzarra). Afera nagusia erabakiak hartzeko Codesa zertan oinarrituko zen erabakitzea zen. Gomendioa “nahikoa adostasun” egon beharko lukeela izan zen. Ekitaldi publiko horren zeregina pro-



George Mitchell senataria izan zen Ipar Irlandako bitartekarien buru eta ondoren, bere izenarekin ezagun egin diren printzipioak onar zituzaten eskatu zien gatazkako alde guztiei.



Nelson Mandelaren inteligentzia politikoa eta negoziazio dohaiak nabarmentzen dituzte ezagutzen dutenek.

zesuaren arauak eta oinarrizko arauak ezartzea izan zen.

Handik hilabetera, Codesaren lehen osoko bilkura historikoa izan zen. Parte-hartzaileak, ikuskatzaileak, Hego Afrikako herritarrak eta mundu osoak une garrantzitsua zela kontura zitezten planifikatu, egituratu eta aurkeztu zuten. Alderdi eta erakunde guztietako buruzagiak eta ordezkariak, egokiro apaindutako areto zabalean eseri ziren. Oholtzan Michael Corbett epaile gorena, biltzarreko bi presidentek eta ekitaldia otoitzekin abiatu zuten hainbat erlijioetako ordezkariak zeuden. Gonbidatuen eremuan, aldiz, enbaxadoreak, dignatarioak eta Hegoafrikako gizarte zibilaren buruzagiak.

Bilerak aurrera egin ahala, Codesaren egitura adostu zuten: kudeaketarako ordezkari batzordea, eguneko kudeaketa batzorde txikiagoa eta alderdi bakoitzeko bina kidek eta bina aholkularik osatutako bost lantalde. Lantalde bakoitzak negoziazioaren alderdi espezifikokoak landuko zituen eta idazkaritza bat ere izango zuen.

Lehen lantaldearen helburua politikan parte-hartzeko askatasun giroa sortzea eta nazioarteko komunitatearen zeregina aztertzea zen. Bigarrenak printzipio konstituzionalak eta konstituzioa osatzeko edukia jorratuko zituen. Hirugarrenak barne gobernuaren afera landuko zuen. Laugarrenak, lurraldeen etorkizuna. Eta bosgarrenaren zeregina negoziazioen eta trantsizioaren esparruak jorratzea zen.

“Espaniako eta Euskal Herriko bake prozesuak, aldiz, ez zuen egitura formalik izan. Izan ere, Madrilek nekez onartu zuen bake prozesurik bazenik ere (...) Batasuna legez kanpo eta buruzagiak politikoki zikinduak, gainerako alderdiak ez zeuden haiekin publikoki biltzeko prest.”

Negoiazioak indarkeria eta hilketa mehatxupean egin ziren etengabe. Zuten egitura formalengatik, oinarrizko arauengatik eta Hegoafrikako herritarrekiko nahiz nazioarteko komunitatearekiko zuten erantzukizun irekiagatik izan ez balitz, ziurrenik negoziazioek ez zuten emaitza positiborik izango.

Ipar Irlandan ere bake prozesua nabarmentzeko ahalegina egin zen. 1996an, IRAk 1994ko su-etena berretsi eta handik gutxira, Sinn Feinen ordezkariak Britainiar Gobernuako ordezkariekin bildu ziren Castle Buildingsen (Stormont, Belfast), zegozkien bulegoak betetzeko eta elkarrizketetan sartzeko prozesua abiatzeko, ordura arte Sinn Fein elkarrizketetatik baztertua izan baitzen. Beheko solairuan alderdi unionisten ordezkariak zeuden, protestanteak. Irlandako Gobernua, nazionalisten eta errepublikarren (katolikoek) ordezkariak eta bertako Alderdi Laborista, aldiz, bigarren solairuko geletan zeuden.

Hirugarren solairuan Britainiar Gobernuaren bulegoak zeuden, Estatu Idazkaritza eta kide independenteen (bitartekarien) bulegoak barne. Halaber, solairu horretan negoziatziorako areto zabal bat zegoen. Horrez gain, bilera areto txikiagoak zeuden solairu bakoitzean.

Negoiazio talde guztiek administratzaileak, lege aholkulariak, ikerlariak, idazkariak eta harreman publikoetarako baliabideak zituzten.

Mitchellen Printzipioak onartu ondoren, alderdi unionista gehienak elkarrizketetan parte hartzen hasi ziren, orduan indar handiena zuen alderdi unionistak (UUP) Sinn Fein-ekin biltzeari uko egin arren. Lehen lorpen nabarmena bi Gobernuak Armak Konfiskatzeko Nazioarteko Batzorde Independentea formalki ezartzeko prozedura mozioa onartzea izan zen; bi azpibatzerde sortzea, bata armagabetzeaz eta, bestea, konfiantza eraikitzeke neurriez arduratuko zena; funtsezko elkarrizketak abiatzeko lehentasunak adostea; negoziazioen aurrerabideak eta prozedurak behar bezala koordinatzeko negoziazio batzorde bat osatu behar zela onartzea.

Espaniako eta Euskal Herriko bake prozesuak, aldiz, ez zuen egitura formalik izan. Izan ere, Madrilek nekez onartu zuen bake prozesurik bazenik ere. Oro har, Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko bilerak sekretuak ziren eta Espainiatik kanpo egin ziren. Ez zegoen inolako gardentasunik. Batasuna ETAren adar politikoaren eta Euskal Herriko gainerako alderdien arteko negoziazioak ere korapilatsuak izan ziren. Batasuna legez kanpo eta buruzagiak politikoki zikinduak, gainerako alderdiak ez zeuden haiekin publikoki biltzeko prest. Aurrez aurreko bilerak izan ziren, baina isilpean. Espero zen moduan, bake prozesua bertan behera geratu zenean, Batasunako buruzagiekin bildu izan ziren alderdietako buruzagiak, Euskal Herriko lehendakari errespetatua barne, auzipetu egin zituzten.


GIZARTE ZIBILAREN ERAKUNDEEN BIDEZ, HERRITARREK AHALIK ETA MAILA GEHIENETAN BAKE EKIMENETAN PARTE HARTU BEHARKO LUKETE

Lehen aipatu dudana bezala, Hegoafrikako negoziazio politikoak etengabe mehatxupean izan ziren, nagusiki Hegoafrikako demokratiza-

zioaren aurka zeuden segurtasun indarretako ildo gogorreko kideek abiatutako indarkeriaren erruz. Negoziazio formal eta egituratuek bake prozesuan garrantzi handia izan zuten arren, litekeena da Hegoafrikan erabateko gerra piztea, *National Peace Accord* (Bake Akordio Nazionala) garaiz ezarri izan ez balitz.

Itxuraz herrialdea gobernaezin bihurtzeko zorian zegoenean, Hegoafrikako hainbat buruzagik (ez soilik politikoe) bat egin eta Bake Akordio Nazionala (NPA) izeneko ituna sinatu zuten. Eta horretan oinarrituta, herrialde osoan bake batzorde sare zabala eratu zen. NPArekin hogeita sei sinatzailek egin zuten bat: gobernuko, segurtasun indarretako, alderdi politiko nagusietako eta estatu independente eta burujabeetako (Bantustanak) ordezkariak, komunitateko eta tradiziozko buruzagiak, unibertsitateetako, negozioen esparruko, sindikatuetako eta elizetako buruzagiak. Guztiek akordioak ezarritako mekanismoak betetzea adostu zuten eta, horren ondorioz, komunitate gatazkak eta gatazka politikoak konpontzeko foroak eratu ziren indarkeriak aldaketa politikoarekiko konpromisoaren oinarriak suntsitzeko arriskua zegoen gizartearen maila guztietan.

Bakea lortzeko herritarren oinarri zabaleko behetik gorako mekanismo hau Hegoafrikako bake prozesuaren funtsezko osagaia izan zen. Herrialde, eskualde eta herri mailan lan egiten zuten bake batzordeek osatutako herrialde osoko egitura sortzea eragin zuen. Apartheidaren poliziako kideek, soldaduek, ekintzaile politikoe, giza eskubideen aldeko abokatuek, enpresarioek, akademikoak eta apaizek –horietako asko ordura arte elkarren arerio izanak– elkarrekin lan egin zuten bake batzordeetan. Eguneko edo gaueko edozein ordutan biltzen ziren eta, bidean topatzen



LANDER ARBELATZ

zituzten erronkei aurre egiteko, gatazka konpontzeko tresnak hartu, egokitu eta eraiki zituzten. Aurrez ezezagunak ziren bakegile mordoak iritsi zen komunitate guztietatik eta gatazkaren alde guztietatik, gobernua, segurtasun indarrak eta ekintzaile politikoak barne.

Gauza asko ikasi ziren orduan. Hauxe izan zen irakaspen nagusietakoa: Etsai amorratuak izandakoak elkarrekin lanean hasi zirenean eta besteak ere gizatasuna zuela ikusi zutenean,

“**B**i bake prozesuotan nazioarteko parte-hartzea sotila, estrategikoa eta prozesuaren alde guztiekin adostua izan zen. Parte-hartzea hasieratik amaierara zehaztu eta sustatu zen.”

oso zaila zen etsaiak izaten jarraitzea. Herrialde osoan, bake batzordeetan zeuden arerioak barkamenak nolako indarra zuen ikasten hasi ziren. Barkatzeak ez du esan nahi onestea edo ahaztea, baina gatazka konpontzeko elementu garrantzitsua izan zen, bake batzordeetan parte hartu zutenak gorrotoa eta erresumina alboratzeko gai izan zirelako. Gainera, lehenengoz egia norberaren ikuspegitik ikusten dela eta, beraz, egia bat baino gehiago egon daitekeela ulertu zuten.

Bake prozesuei dagokienez, NPA mekanismo bakana izan zen eta ekarpen handia egin zuen negoziazio nazionalak aurrera egin zezan eta, azkenean, emaitza ona izan zedin. “Negoziazioen” buruzagitzaren eta etsaiekin biltzeko aukera ez duten herritarren arteko distantzia gero eta handiagoak, maiz, gatazka politikoak konpontzeko prozesuen azpiak jaten ditu.

Hortaz, komunikazio eraginkorra gakoetako bat da. Hainbat mailatan eta herrialde osoan lan egiten zuenez, NPAk erakunde politiko anitzen arteko komunikazio horizontal nahiz bertikala erraztu zuen. Ondorioz, NPAk Hegoafrikaren bilakaeran oinarri zabaleko heziketa politikoa ahalbidetu zuen eta, hala, Hegoafrikako komunitate guztietako herritar gehienek beren buruzagien alde egin zuten.

NAZIOARTEKO SOSTENGU ERAIKITZAI-LE ETA INPARTZIALA BEHAR DA

Beste zenbait herrialdeetako barne gatazkek nazioartetik jaso duten ekarpena askotarikoa

izan da: Aipagarria batzuetan –Hegoafrikan eta Ipar Irlandan adibidez– eta oso txarra bestee- tan –Ruandan, Palestinan (Gaza) eta Iraken, besteak beste–.

Zein dira Hegoafrikako eta Ipar Irlandako bake prozesuen irakaspen nagusiak?

- Nazioarteko politikaren eragina adierazgarria da. Zalantzarik gabe, Sobietar Batasunaren eta Gerra Hotzaren amaiera Hegoafrikako bake prozesua bultzatu zuen elementuetako bat izan zen. Doktrinaturako hegoafrikar zurientzat ANCK mehatxu komunista izateari utzi zion eta horrek lehentasuna segurtasun estrategia militarra izan beharrean negoziazio estrategia izatea ekarri zuen. Irlandan mugimendu errepublikarrak AEBen sostengu handia zuen, irlandar jatorriko komunitate zabalarari esker. 2001eko irailaren 11ko erasoak gertatu zirenean, hainbat urte lehenago IRAk su-etena aldarrikatu arren, armagabetzea oraindik ez zen gauzatu eta unionistek bake prozesuaren mehatxutzat jo zuten hori. Irailaren 11n, estatubatuarrek zuzenean eraso terrorista izugarria jasan zutenean, aurrez egon zitezkeen IRAren aldeko jarrerak desagertu egin ziren. Nire ustez, horrek armagabetze prozesua bizkortu zuen.
- Munduko potentzia nagusientzat Hegoafrikak eta Ipar Irlandak ez dute garrantzi estrategiko berezirik. Ondorioz, gatazka horietan, nazioarteko parte-hartzea arrazoi egokiak eragin zuen, gatazkan zegoen herrialdearen interesek, alegia, eta ez gatazkaz kanpoko nazioen interes egoistek. Arrazoi ezkuturik ez zela esan ez daitekeen arren, izatekotan, ez zuten emaitzan eraginik izan.
- Bi bake prozesuotan nazioarteko parte-hartzea sotila, estrategikoa eta prozesuaren alde guztiekin adostua izan zen.
- Parte-hartzea hasieratik amaierara zehaztu eta sustatu zen.

Brian Currin
Bruselan, 2008ko irailean

Konponbiderako elkarrizketarako baldintzak



Paul Rios*

DANI BLANCO

Lokarriko koordinatzaileak azken bake negoziazioa aztertu ostean, saiakerak zergatik huts egin zuen azaltzen du puntu orokor garbi batzuen bidez. Honela, etorkizuneko balizko bake prozesuak nolako egitura izan behar lukeen ondorioztatzen du.

2006ko prozesuak itxaropen handia sortu zuen euskal gizarte osoan. Uste orokorra zegoen zabaldutako prozesuak atzera egiterik ez zuela. Gertakariak kontrakoa erakutsi zuten. Elkarrizketa politikoa eten egin zen, ETAk atentatua burutu zuen Madrilgo T4an eta prozesuak, aurreko aldietan bezala, porrot egin zuen.

Porrotak lagungarri dira hobetzeko. Zorigaitzez, bakeranzko prozesuen porrotek sufrimendu handiagoa eragiten dute. Orain, bakea lortzeko aukera berri bat zabaldu da eta, gutxienez, ez lirateke errepikatu behar aurreko akatsak. Ziurrenik, berriak egingo dira. Baina bake-prozesu berri baten euskarriak eta baldintzak ongi lantzen badira, erlatiboki errazagoa izango da azal daitezkeen arazoak gainditzea.

2006AN EGINDAKO AKATSAK

Indarkeriara itzultzeko mehatxua egotea izan zen lehendabiziko akatsa. Su-etena iragarri zuen ETAk, baina atzera itzultzeko aukerak prozesu tentsio egoera batera eraman zuen bere garapena oztopatuz. ETak tutoretza hartu zuen bere gain,

prozesuaren bilakaera ebaluatzeko gaitasuna bere eginez. Horren ondorio nagusia izan zen sektore politiko guztiek ezin izan zutela parte hartu aukera berdintasunean.

Batasunak ere ezin izan zuen berdintasun horretaz gozatu, legez kanporatua baitzegoen. Hori muga bat izan zen publikoki bere proposamenak azaldu ahal izateko eta, gainera, baldintzatu egin zituen bere harremanak gainerako alderdi politikoeekin, ezin izan baitzuten finkatu elkarrizketa publiko bat haiekin. Areago, elkarrizketan jarduteko ahalegina gauzatu zutenean, salaketa penaletan nahasita ikusi zituzten beren buruak. Horren adibide izan zen Batasunako ordezkariekin publikoki bildu izanagatik Ibarretxe Lehendakariaren eta PSEko buruen aurkako epaiketa.

Batasuna legez kanpo egotearen ondorioz, elkarrizketa irekiak Loiolan sekretupean gauzatu ziren. Alderdien mahaia ez zen ofizialki eta publikoki osatu eta ez zituen partaide izan Legebiltzarrean ordezkari zuten alderdi politiko guztiak. Horrela, nahikoa erraza izan zen elka-

rizketa horiek haustea. Dena den, sekretismoa akats metodologiko larria izan bazen, are erabakigarriagoa izan zen elkarrizketak gidatzeko printzipioen eta prozeduren gabezia. Horiek gabe, ia ezinezkoa da blokeoak gainditzea, azkenean gertatu zen bezala. Loiolako elkarrizketetan parte hartu zuten alderdiek ez zuten baliabiderik eduki desadostasunak azaldu ziren uneari era partekatuan heltzeko.

Are gehiago, finkatuta zirudien oinarrizko adostasunetako bat elkarrizketa-mahaien arteko bereizketa zen. Planteamendu horren arabera, ETA eta Gobernu arduratuko ziren afera teknikoei (armak, indarkeriaren etetea, presoak) buruzko akordioak ixteaz. Bitartean, eduki politikoari buruzko elkarrizketa alderdien esparrura xedatuko zen. Elkarrizketa politikoa blokeatu zelarik sortu zen arazoa. Indarkeriaren itzulera ekiditeko premiaren aurrean, ETA eta Gobernuak gai politikoak hasi ziren lantzen beren elkarrizketetan.

Azkenik, gardentasunaren eta herri-partaide-tzaren gabezia izan zen beste akats azpimarragarrietako bat. Gizarteak ez zuen izan elkarrizketa politikoaren garapenaren berri eta zitalkeria areagotu baino ez zuen egin horrek. Sostengua ematen zioten sektoreei dagokienez, ez zuten izan herritarren euskarri bat materializatzerik eta zehazterik zaila delako babes ematea ezagutzen ez denari.

BAKE-PROZESU ATZERAEZIN BATERAKO BALDINTZAK

Bake-prozesu batek ez du inoiz diseinu perfekturik. Beti azaltzen dira arazoak. Prozesu baten arrakasta bermatu ahal izateko, euskarriak sendoak izatea eta eragozpenak era partekatu eta eraitkitzailean kudeatzea da garrantzitsua. Hain zuzen, 2006ko esperientziak erakusten du zein garrantzitsua den prozesu baten bideragarritasuna bermatzeko baldintzak sortzea. Laburbilduz, ezinbestekoak dira parte hartu ahal izateko askatasuna eta aukera berdintasuna. Gurera ekarrita, indarkeriaren amaiera eta legalizazioa dira ezinbesteko baldintzak.

Alde batetik, elkarrizketaren gaineko presioa deuseztatuko luke indarkeriaren amaierak eta sektore politiko guztien partaidetza ahalbidetuko luke indarkeriak dakarren mehatxurik gabe, gainera konfidantza eraginez inplikaturiko sektore guztien artean. Bestetik, indarkeriaren amaiera itzulerarik ez duen bide batean sartuta, ekiditen da ETAk bereganatzen saiatzea gai politikoei buruzko protagonismoa, ez baitagokio berari.

Legalizazioari dagokionez, honako premisatik abiatu behar da: gaur legez kanpo dagoen Ezker Abertzalea euskal gizartearen partaide da eta, beraz, badu bake-prozesuan gainerako alderdi politikoek dituzten aukera berberekin parte hartzeko eskubidea. Bada garrantzia duen zerbait: Ezker Abertzalearen legalizazioak etorkizunean alderdien arteko elkarrizketa ofiziala izatea ahalbidetuko luke. Elkarrizketa mahai bat publikoki osatzen delarik, zailago da alderdietako batek elkarrizketak zokoratzea. Eta hala egiten badu, iritzi publikoak hari leporatuko dio elkarrizketaren haustura. Horrela, denek beren burua behartuta ikusten dute ahalegin bat gauzatzera elkarrizketa abian mantentzearen. Stormonteko elkarrizketak adibide paradigmaticoa izan ziren. Krisi eta blokeoak izan zituzten aurrez aurre une ezberdinetan, baina inork ez zituen elkarrizketak utzi nahi izan. “Nola azal dezakegu ateratzerakoa?” egiten zuten galdera.

PRINTZIPIOAK, PROZEDURAK, EGUTEGIA ETA EGITURA

Prozesu bati berme gehiagorekin heltzea ahalbidetzen du guztien partaidetzak aukera berdintasunean. Baina elkarrizketa prozesu batek arrakasta izan dezan akordio metodologikoak beharrezkoak direla ere erakusten du 2006ko esperientziak. 2006an zuzenean ekin zitzaion akordio politiko baterako edukiei buruzko eztabaidari. Hitz egitea beti da onuragarria, baina akordio bat lortzeko elkarrizketan jarduteak beharrezkoa du metodo bat. Ezinbestekoak dira elkarrizketa prozesua gidatuko duten oinarri metodologikoei buruzko lehendabiziko akordio

batera iristea ahalbidetzen duten “elkarrizketei buruzko elkarrizketak”.

Partaideen metodologia betekizunak dira konpromisoak, elkarrenganako berme gisakoak. Horiek dira negoziazio mahaira bildu aurretik denek onartu beharreko arau nagusiak. Mitchell printzipioak adibide ona dira. Elkarrizketaren garapenean eragiteko indarkeriarekiko eta indarkeria erabiltzeko mehatxuarekiko errefusa eta aurkaritzak, aniztasunari errespetuak edo betoen gabeziak gida bezala funtzionatzen duten lehen-dabiziko printzipioak dira.

Elkarrizketa prozesu osoa –zehatz-mehatz eta urratsez urrats– arautzeari dagozkio prozedura irizpideak. Funtzionatzeko araudia, alegia. Prozedura gaien baitan biltzen dira: alderdi bakoitzaren ordezkariak, bileren garapena arautzea, lanpepe bat eta desadostasunen aurrean jarduteko era finkatzea.

Egutegia estuki lotuta dago elkarrizketaren helburuekin, bilatzen den akordio multzoarekin. Egutegia aurretik zehazteak akordio bat lortzeko erabiliko diren prozedurak behar bezala zehazten laguntzen du.

Bukatzeko, elkarrizketa finkaturiko helburuen arabera ordenatzea ahalbidetzen du egiturak. Komeni da egitura honek elkarrizketarako abiapuntu batzuk seinatzea, desadostasun eremuak identifikatuz. Elkarrizketa politiko baten helburua ez da aurkari politikoa konbentzitzea, partekatua izan daitezkeen akordioak lortzea baizik kontuan hartuz dauden desadostasun legitimoak, zeinak euskal gizartearen aniztasunaren oinarri baitira.

ONDORIO BAT

2006ko alderdien mahai bat ezinezkoa dela entzun dakioke gaur hainbat buruzagi politikori. Loiolako elkarrizketak elkarrizketa-mahai baten suzedaneo bat izan zirela da artikulu honen tesia. Isil-gordean gertatzen den zerbait, alderdi politiko guztien partaidetzarik gabe eta horietako bat legez kanporatua




LANDER ARBELAIZ

'Bakerantz, legalizazioa' lemapean Bilbon manifestazio ixila egin zuten milaka herritarrek joan den otsailaren 19an.

egonik, ezin da elkarrizketa-mahai izendatu. Elkarrizketa beharrezkoa da eta beharrezkoa izango da, izan Legebiltzarraren barruan edo kanpoan. Behin indarkeriaren amaiera eta legalizazioa lortuta, ez dira bukatuko arazo guztiak. Euskal gizarteak era partekatuan aurre egin beharko die giza eskubide guztien bermeari, proiektu politiko demokratiko guztientzako aukera berdintasunari, elkarbizitzeko oinarriko adostasunei, memoriari eta gizartearen adiskidetzeari. Elkarbizitza barneratzaile batek beharrezko ditu elkarrizketa eta akordioa. Bakea lortu beharra dago, baina euskarriak ere finkatu behar dira etorkizunean errepika ez dadin azken 40 urte hauetan gertaturikoa.

** Paul Rios Lokarriko koordinatzailea da*

Bakearen ondoren, politika



DANI BLANCO

Imanol Murua Uria*

'Loiolako Hegiak' liburuaren egileak, balizko bake prozesu batean jorratu beharreko gaiak aztertuta, bere ustez, eskemak zeharo aldatu ditu ETak negoziazioa hasi aurretik armak uztean, hori izaten baita askoren amaierako helburua.

Gehienok ados gaude: ETaren indarkeria bukatu da. Honetan ere bat gatoz asko: ETaren indarkeriaren amaiera ez da gatazka politikoaren amaiera. Baina hortik aurrera, baieztapenak beharrean galderak datoz: behin ETaren indarkeria amaituta, nola jarri gatazka politiko konponbidean? Zer dator, edo zerk etorri beharko luke, Batasunaren eta ETaren alde bakarreko erabakien ondoren?

2005-2007ko prozesuan ezer baldin bazegoen garbi, metodologia zen:

- Prozesuan engaiatzeko alde biko konpromisoa su-etenaren aurretik.
- Su-etena, konpromiso horien ondorioz.
- Bi mahaiko edo bi erraileko bake prozesua, su-eten iragarpenaren ondoren.
- Auzi teknikoaren negoziatioa ETaren eta Espainiako Gobernuaren artean.
- Auzi politikoei buruzko negoziatioa alderdi politikoen artean.
- Eta, behin alderdien artean joko arau berriei buruzko adostasuna lortuz gero, akordioa instituzioetan eta legerian gauzatzeko bidea.

Ezer ez da berdin izango. Orain arteko prozesuetan, ETak armak utz ditzan lortzea izan da negoziatio politikoetan engaiatzeko motibazio nagusia, ezker abertzalea ez beste eragile esanguratsu gehienentzat. Orain, ETak bere kabuz hartu badu alde bakarreko erabakia, ez da zaila PSOEko buruzagien eta EAJko batzuen galdera imajinatzea: zertarako negoziatu?

Brian Currinek Nazioarteko Harreman Taldearen izen-abizenak aurkeztu aurretik egin zuen agerraldian, iazko azaroaren 12an, talde honen lehentasuna euskal alderdien arteko negoziatioak bultzatzea izango zela adierazi zuen, ez bat-bateko adierazpenetan, Harreman Taldearen "mandatuari" buruz propio prestatutako agirian baizik:

«[Nazioarteko Harreman Taldearen egitekoa da] Alde askotako elkarrizketa eta negoziatio bultzatu, erraztu eta ahalbidetzea, inongo baldintzarik gabe eta emaitza aurretik zehaztu gabe, Mitchellen Printzipioen menpe. Gatazka politiko gaitzeko akordio barneratzaile bat lortzea litzateke alderdi askotako elkarrizketa eta negoziatioaren helburua».



ARGAZKI PRESS / JAGOBA MANTEROLA

Ezker abertzaleak Iruñean egindako agerraldia "Ondorioetatik, bidea eta urratsak, Ezker Abertzale, Abian" dokumentuaren berri emateko. Alderdiko ordezkarrizta zabalak hartu zuen parte aurkezpenean.

Handik hiru hilabetera taldea bera aurkeztu zuenean, nazioarteko eragile hauen lehentasuna Sortu-ren legezkatzean eragitea izango dela adierazi zuen, alderdien arteko elkarrizketarena bigarren maila batean utzita. Zer gertatu zen tarte horretan? Alderdien mahaietan ezer negoziatzen hasteko oraindik baldintzarik ez dagoela konturatu dira nonbait: PP kontra dago, PSE-EEK kontra dagoela dio eta EAJko buruzagitzak ez du orain horren premiarik ikusten.

Gernikako akordioaren sinatzaileen bide orrian, baina, alderdien arteko negoziazioak geltoki garrantzitsua dira. Baina horretan hasi aurretik baldintza batzuk bete behar dira, hitzartutako idatziaren arabera: aurrena indarkeriarik gabeko jokalekua eta alderdi guztien legezkatzea, eta ondoren "ezinbestekoa" izango da "elkarrizketarako eta negoziazio politikorako guneak zabaltea, gatazkaren zioak eta ondorioak osotasunean aztertzeke". Gernikako adierazpenak aurrerago zehazten du zeri buruzko akordioa bilatu beharko litzatekeen mahai horretan edo horietan: "Elkarrizketa politikoen edukiek Euskal Herriko kultura politiko guztiak barne hartu-

ko dituen akordioa izango dute helburu: euskal errealitate nazionalaren eta erabakitze ahalmenaren onarpenari buruz; barne eredu juridiko-instituzionalari eta, estatuetik lotura motari dago-kionez, independentzia barne; eta herriak duen borondate demokratikoa errespetatzeari buruz".

Zutik Euskal Herria agirian ezker abertzaleak azaldutako eskema zehatzagoa, jakina, bat dator Gernikakoarekin: aurrena "gutxieneko oinarri demokratikoak" (legalizazioa), gero "akordio demokratikoa" (joko araei buruzko negoziazioa), eta ondoren "marko demokratikoa" (hitzartutako joko arau berriekin esparru politikoa berritzea eta herritarren berrestea).

Beraz, Gernikako akordioaren sinatzaileen bide orriaren arabera, EAJk, PSE-EEK eta Batasunak Loiolako mahaiko eduki politikoei buruzko negoziazioak lekua du prozesu berri honetan ere. Loiolako mahaian negoziazio gaiak gehiago izan ziren, baina, funtsean, erabakitzeko eskubidea eta lurraldea egituratzea izan ziren gako nagusiak. Lehen puntuan formulazioa hitzartzera iritsi ziren: proiektu politiko guztiak defendagarriak ez ezik

gauzagarriak ere izan behar dutela eta Madrilek euskal gizarteak erabakitakoa errespetatu beharko lukeela idatzi zuten, hiru aldeek onartutako hitzekin. Baina beste korapilo nagusian, azkenean, ezinezkoa izan zen adostasuna: lau herrialdeko autonomia bateratua osatzeko egitasmoa bultzatzeari uko egin zion PSE-EEk, eta alderdi sozialistari hori exijitzearen aurka egin zuen EAJK.

Hurrengo negoziazio mahaian, ezker abertzaleak “akordioa demokratikoa” esaten dion fasean, ez da auzi bera modu berean egongo. Edo ez luke egon beharko, behintzat. Zutik Euskal Herria agiriak berak ondo bereizten ditu auziak eta eremuak: “akordio demokratikoa”, hitzez hitz dioenez, “azken negoziazio prozesuan landutako eduki politikoaren baitako akordio garatua litzateke”, hau da, “Euskal Herriaren nazio izaera aitortuz, proiektu politiko guztiak gauzagarri bilakatzeari bideratuz eta euskal lurraldeek –euren artean eta Estatuarekin– harremanak finkatzeko bide juridiko-politikoak egituratuz”. Alegia, negoziazioaren bidez joko arauak hitzartzen dira, ez proiektu politiko konkretuak. Hori ondoren dator, “marko demokratikoa” esaten dion fasean: “Herri borondateari esker osatuko litzateke. (...) Hortxe kokatuko luke Ezker Abertzaleak erabakitzeko eskubidea jasoko lukeen lau herrialdeetako autonomia lortzeko ahalegina”. Ondo ulertu badut, joko arauak buruzko negoziazio mahaitik ateratu du ezker abertzaleak Hegoaldean autonomia bateratua osatzeari gaitasuna, eta hurrengo fasean eraman du, erabakiak gehiengoaren jokoaren arabera hartzen diren borroka eremura, alegia.

Baina negoziazio politikoa, bultzatu nahi dutenen ikuspegian ere, gero dator. Aurrena bakea, eta gero politika. Gogoratzen? Josu Jon Imazek eta Jose Luis Rodriguez Zapaterok hainbeste aldiz errepikatu zuten esaldiak erroak orain bota dituzten beste alderdietan. Gernikako akordioaren sinatzaileek ere aurrena bake jokalekua bermatu behar dela diote, eta ondoren etorri behar duela joko arauak buruzko negoziazioak.

Ezker abertzalea ere eskema horrekin ari da. Aurreko prozesu guztietan, auzi politikoa konpon-

bidean jarri arte ez zen bidezkoa “auzi teknikoak” buruzko negoziazioari heltzea, presoentzako auziak lehentasuna hartu du ezker abertzalearen ibilbide orrian. Eta negoziazio gaien banaketari dagokionez, Anoetako Adierazpeneko irizpideek indarrean jarraitzen dute: ETAren eta Espainiako Gobernuaren artean hitz egin beharrekoa litzateke presoentzako auziak, gainerako “auzi teknikoekin” batera.

Abiapuntuko arazora itzuli gara. Espainiako Gobernuak dio ez duela ETArekin zer negoziatu, eta Eusko Jaurlaritzak eta PSE-EEk diote ez dagoela euskal alderdien artean elkarrizketa mahai bat zertan osatu. ETA gelditu dela egia bada, horren beharrik ez dutela pentsa dezakete. Eta, adierazpen publikoetan diotena egia baldin bada, hala pentsatzen dute.

Atentatu kanpainen bidez etsaia negoziazio mahaian eserarazteko garaiak zorionez joanak direnez, indar metaketaren garaiak dira hauek, indar korrelazioak joko politikoaren bidez aldatzen saiatzeko garaiak: irtenbide negoziatuaren aldekoen artean indarrak bildu, esparru politikoa aldatzearen aldekoen eremua indartu eta, gehien-goak aldatzearen eta irabaztearen poderioz, negoziazioa eragin; negoziazio mahaira iritsi, baina indartsu iristekotan. Prozesu hau bultzatzen ari direnen estrategiak eta jokamoldeak aztertuta, halako bidea egin nahi dutela susmatzen da. Sinple esanda: aurrena Lizarra-Garazi, ondoren Loiolara iristeko.

**Imanol Murua Uria kazetaria da*

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIarekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa: larrun@argia.com

Telefonoa: 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L.

Informatika: lametza Interaktiboa.